

"BOMBONERA" TALDEA

Oraintxe lau urte sortu zan Eibar'en <<Bombonera>> taldea. Eibartar batzuek martxan jarri eben talde au gure erriko futbol ekipoari bultza egin naiean. Gipuzkoako ta Bizkaiko futbol zelaietara juaten zira Ikurriñ eta bonboarekin beren ostikolariei laguntzeko asmoz. Orain, barriz, eundakak alkartzen dira Eibar'ko taldearen inguruan. Edade eta pentsakera guztietakoak dira. <<Movida>> au <<eibartar eta politika bakua>> izan nai dau. Ustekabe izugarria izan zan donostiarentzat, juan zan Anima Egunian, Eibar'ko taldeak Sanse'rekin jokutzen ebala-ta, 2.000 <<bombero>> Amara'ko geltoki edo estasiotik jaitsi ziranean. Easo kalean Donostia'n bizi diran eibartar askok bat egin eben jendetza arekin.

Trenez joan-etorria egiñ, ogibitartekua, garagar-ardo eta Zumaia'ko geltokiko saldia, dana 250 peseta kostatu jakuen. Baziran gaiñera, Getaria'tik aurrera itxasoz juan nai ebenak. Eziñ, ordea, itxasoa asarre bait-zegoan.

Kapitalean la egun guztia pasatu eben gure 2.000 ta gelago eibartarrek. Bai alaitu be, gizatasun osoz gaiñera, Donostia'ko alderdiak eta Atotxa'ko zelaia. Sanse'kin berdinduta geratzia garaikunde zoragarria izan zan. Baiñan eibartarrak Donostia'n laga eben eredia zoragarriagoa oraindik.

Zorionak <<Bombonera>> talde oni! Eta aurrera jarrai dezatela Eibar'ko izen ona –gizatasunezko egintzekin- edonun zabaltzen. Ziñez, Eibar'ek bear eban, bai <<Bombonera>>'ren bultzakada, krisisak naiko jota daukan erri ontan ilusioa eta batasuna sortarazitzeko.